

Euskaltzaindiak 2013. urtean zehar hainbat lankidetzahitzarmen sinatu ditu

Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak

Otsailaren 7an, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiek eta Euskaltzaindiak lankidetzahitzarmena izenpetu dute euskal onomastikaren eremuan elkarrekin aritzeko. Hitzarmena, Mario Iceta Bilboko gotzainak, Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak, Miguel Asurmendi Gasteizko gotzainak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu dute.

Hitzarmenaren xedea euskal deituren grafia finkatzea da. Horretarako, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiei dagozkien parroketako sakramentu liburuetakoko deituren aldaerak erabiliko dira iturri gisa. Aipatu deiturak datutegietara atera dira eta Elizbarruti bakoitzak bereak ditu ikusgai bere webgunean, eta Irargiren webgunean hirurenak, hiru Elizbarrutiek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Departamentuarekin izenpetu duten hitzarmenari esker. Sail honetako liburu zaharrenak XV. mendekoak dira eta bertan, besteak beste, gure arbasoen euskal deitura asko jasotzen dira. Denboran zehar deituren idazkera bera aldatzeaz gain, gaztelaniazko grafia erabili izan da berauek idazteko garaian, eta, horren ondorioz, deiturak, sarritan, itxuraldatu ageri dira.

1998an Euskaltzaindiak, Eusko Jaurlaritza eta Madrilgo Justizia Ministerioarekin batera, euskal deiturak arautzeko eta normalizatzeko asmoz, liburu bat argitaratu zuen. Hura osatu eta hobetu nahian, orain, bigarren edizio bat prestatzeari ekin nahi dio Euskaltzaindiak. Argitalpena ahalik eta osatuena izan dadin, deiturek mendeetan zehar izan dituzten aldaerak bildu

nahi ditu Euskaltzaindiak, egungoak zein historikoak, gizabanakoei zein ikertzaileei edota instituzioei baliagarri gerta dakizkien. Era berean, arauzko idazkerak, bilaketak eta aurkibideak garatzeko balioko du, herritarren bilaketak eta ikertzaileen lana erraztuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Elizbarrutiek eta Euskaltzaindiak izenpetu duten hitzarmenaren arabera, bi epetan gauzatuko da lan hau: lehenengoan, hiru Elizbarrutiek 1700. urtera arteko deituren erlazioak emango dizkiote Akademiari arautu ditzan; Euskaltzaindiak, berriz, emaitzak biltzen dituen deitura arautuen datutegi bana emango die Elizbarrutiei. Lan hori amaitutakoan, bi aldeei ongi iritziz gero, 1700etik 1900 arteko deituren azterketa egingo da. Sinatu den hitzarmenean aurreikusi denez, lehen zatian dagozkion lanak, 2013-2014 epean egingo dira.

UZEI

Martxoaren 6an, UZEIren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. UZEIren izenean Jon Etxabe presidentek sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Euskaltzaindiaren eta UZEI elkartearen arteko harremana 1986an hasi zen, eta hainbat eginkizunetan gauzatu da: hiztegi gintzan (Hiztegi Batuaren presaltaneko fase guztietan eta batzorde eta lantaldeetako kide gisa) eta corpus gintzan (XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoaren osaera-fase guztietan eta Lexikoaren Behatokia). Hala, bada, martxoan sinatu den lankidetzaz hitzarmenaren bidez, bi erakundeok aipatu elkarlana indartu eta areagotu nahi dute, betiere euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatze asmoz.

Bost urteko iraupena izango duen hitzarmenak jasotzen duen lege, bi erakundeon arteko elkarlana euskararen corpusa eguneratzeko, mantentzeko, gizarteratzeko eta erabiltzaileen beharretara egokitzeko proposatzen diren egitasmoen inguruabarrean gauzatuko da. Horiek horrela, bi erakundeek berriaz adostu dute, XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa

(ECE), Hiztegi Batu Oinarriduna (HBO), Lexikoaren Behatokia (LEBE) eta Hiztegi Batuko lantaldean lankidetzan aritzea.

Nafarroako Gobernuak

Apirilaren 10ean sinatu da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko aurtengo lankidetzaz hitzarmena. Akademiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu du, eta Euskarabidearen izenean Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak.

Lankidetzaz hitzarmenak urteko lan arloak zehazten ditu. Hala, hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak aurtun 80.000 euro erabiliko ditu Euskaltzaindiak Euskal Corpus Onomastikoan egiten dituen lanetarako, eta Nafarroan Onomastikako eta Toponimiako lanak egiteko. Era berean, Nafarroako Gobernuak bestelako konpromisoak hartu ditu: Akademiaren Hiztegi Batua osatuko duela, Nafarroako euskalkietako hitzak sartuz; hizkuntza kalitateko zerbitzua abian jartzen lagunduko duela; eta Akademiak eskatutako testuak gaztelaniatik euskarara itzuliko dituela. Euskarabideko langileak arituko dira zeregin horretan.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 foru legean, esaten da Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala Nafarroan, euskararen hizkuntza arauak ezartze aldera. Foru lege berean, arautzen da Euskaltzaindiak toponimia gaietan izan behar duen jardura ere, toponimia gaien gaineko txostenak emateko erakunde den aldetik.

AEK

Apirilaren 17an, AEK-k eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. AEKren izenean Murtxe Mugika koordinatzaile nagusiak sinatu du, eta Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Eñaut Mitxelena AEK-k

kaleratzen duen *Aizu!* aldizkariaren zuzendaria eta Xabier Kintana Euskaltzaindikoko idazkaria ere ekitaldian izan dira.

Hitzarmen horrek AEKren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sendotzea du helburu, eta euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

Besteren artean, hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeke asmoz, argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoa, *Aizu!* aldizkarian sortutakoa batez ere, Akademiaren eskuetan jarriko du AEK-k. Lexikoaren Behatokiaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta linguistikoki anotatua eraikitzea da. Egitasmo horretako testu-masak hainbat hedabideke euskaraz ekoiztutako berriak –ahozkoak nahiz idatzizkoak– hartzen ditu oinarritzat, zurrupatuz eta corpusaren zoru bihurtuz. Akademia, UZEI, Elhuyar eta EHUKo Ixa taldearekin garatzen ari da.

Eusko Ikaskuntza

Ekainaren 13an, Eusko Ikaskuntzak eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzatza-hitzarmena sinatu dute Bilbon, Euskaltzaindiaren egotzan. Eusko Ikaskuntzaren izenean Iñaki Dorronsoro lehendakariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Xabier Kintana Euskaltzaindikoko idazkaria eta Rosa Miren Pagola Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordea ere izan dira ekitaldian.

Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak, erakunde bakoitzaren izaera eta helburuen barnean, bien arteko lankidetzatza-proiektuak sustatu eta garatu nahi dituzte euskal hizkuntzaren eta kulturaren esparruan. Testuinguru horretan, elkarrekin ikerketak gauzatu nahi dituzte hizkuntza eta kultura izaerako gaietan, bai eta hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen arteko harremanak sendotzea xedetzat duten egitarauen inguruan ere.

Horiek horrela, bi erakundeon arteko lankidetzatza euskal hizkuntzaren eta kulturaren eremuan gauzatuko da, bai eta hizkuntzaren, kulturaren eta gi-

zartearen arteko harremanak sendotzea xedetzat duten egitarauen inguruabarrean ere.

Euskal Kultur Erakundea

Ekainaren 19an, Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmena sinatu dute Baionan, Euskaltzaindiaren ordezkartzan. Euskal Kultur Erakundearen izenean Pantxoa Etxegoin zuzendariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Haiekin batera hauek izan dira ekitaldian: Terexa Lekunberri EKEko Etnologia eta Kultura Ondare Immateriala Sailekoa, eta Xabier Kintana eta Jean-Baptiste Coyos, Euskaltzaindiko idazkaria eta Jagon sailburua, hurrenez hurren. Piarres Xarriton euskaltzaina ere izan da.

Hitzarmen horrek Euskal Kultur Erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko harremana indartu eta beste eremu batzuetara ere eramatea du helburu. Oro har, bi erakundeok lankidetzan arituko dira, euskara eta euskal kultura zabaltzeko ekimenak areagotzeko asmoz.

Euskal Kultur Erakundea 1990. urtean sortua izan da, euskararen eta euskal kulturaren alde ari diren elkarteek bultzaturik eta erakunde publikoek lagundurik, hala nola Estatua, Akitaniako Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilua, eta euskal kulturaren aldeko Herrien Sindikatua, gaur egun iparraldeko 146 herrik osatzen dutena. Bere helburu nagusia euskal kulturaren garapena eta hedadura sostengatzea da.

Kultur arloan diharduten elkarteak laguntzen ditu, edota haiekiko elkarlana bultzatzen du. Gaur egun, 140 elkarte dira Euskal Kultur Erakundeko kide.

Editorial Iparragirre

Irailaren 11n, Editorial Iparragirrek eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmena sinatu dute Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Editorial Iparragirreraren izenean Iñaki Alzaga presidentea sinatu du, eta Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Bingen Zupiria eta

Joseba Santamaria *Deia* eta *Noticias de Navarra* egunkarietako zuzendariak eta Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkaria ere ekitaldian izan dira.

Hitzarmen horren ondorioz, *Ortzadar* gehigarriaren euskarazko testu-masa osoa Akademiaren eskuetan jarriko da, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz. *Ortzadar* Editorial Iparragirrek editatzen du, eta Noticias Taldea osatzen duten lau egunkariak –*Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Noticias de Navarra* eta *Noticias de Alava* egunkariak– zabaltzen dute.

Ez da hau Euskaltzaindiak eta Iparragirrek sinatzen duten lehen hitzarmena. Izan ere, 2010eko otsailean, bien arteko lehena izenpetu zuten, eta, besteren artean, *Deia* egunkariak euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jartzeko konpromisoa hartu zuen, Lexikoaren Behatokia egitasmoa garatzeko. Bestalde, urte bereko ekainean, helburu bera zuen hitzarmena sinatu zuen Akademiak, *Noticias de Gipuzkoa* egunkariarekin.

Orain, 2010ean Editorial Iparragirrerekin sinatutako lankidetzaz-hitzarmenaren eranskin gisa, *Ortzadar* gehigarriaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko dute.

Iruñeko Udala

Irailaren 27an, urtebeteko iraupena duen hitzarmena sinatu dute Iruñeko Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Enrique Maya alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute. Iruñeko Udaletxean egin du Euskaltzaindiak iraileko osoko bilkura. Hori dela-eta, hitzarmenaren sinaduran, euskaltzainburua ez ezik, gainerako euskaltzainak ere izan dira. Iruñeko Udaleko zinegotziak ere joan dira ekitaldira.

Hitzarmen horren helburuak honako hauek dira:

- Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritzen ahalko da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza aferetan bezainbatean.
- Euskaltzaindiak ematen jarraituko du hala herritarrek eskaturiko hizkuntzaren inguruko argibideak eta aholkuak nola txostenak eta egiaz-

tagiriak, bai bere bulego nagusietatik bai Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkarietatik.

- Kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da elkarlanean.
- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio bakoitzaren hamar ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere hitzarmen honen esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira. Argitalpen horiek Iruñeko liburutegi publikoetara bidaliko dira.

EITB

Urriaren 1ean, lau urteko iraupena izango duen lankidetzaz hitzarmen berria sinatu dute Maite Iturbe Euskal Irrati Telebista (EITB) erakundeko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak, EITBren Bilboko egoitzan.

Hitzarmen horren bidez, EITBko hedabideetan euskararen erabilera ona sustatuko da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuen ildotik. Horrela bada, EITBko hedabideek kalitatezko euskara eredu estandarra zabaltzen eta finkatzen lagunduko dute. Aldi berean, euskalkien aberastasuna bistaratzen eta balioan jartzen ere lagunduko dute hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran. Irizpideak, EITBren estilo liburuan zehaztuta egongo dira. Honenbestez eta hau guztia aurrera eramateko, EITBk Euskaltzaindiko Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokiaren laguntza eta kolaborazioa izango du.

Bi erakundeen arteko lankidetzaz esparru hauetan gauzatuko da:

- Hiztegi Batuaren eta Onomastikaren alorrean, bereziki EITBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo, antroponimo eta abarrei lotuta.
- Hizkuntzaren gramatika.
- Ahoskerari buruzko arauak eta jarraibidea, hizkuntzaren ebakera zuzena zaindu eta fonetika hutsak saihesteko.

Euskararen Erakunde Publikoa

Urriaren 15ean, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak bi erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Baionan, Euskaltzaindiaren ordezkaritzan. Euskal Kultur Erakundearen izenean Frantxua Maitia presidenteak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

2008. urteko urtarrilaren 24an, Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmen orokor bat izenpetu zuten, bi erakundeen arteko lankidetzaz garatzeko eta egituratzeko. Hitzarmen orokor horrek Euskal Kultur Erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren nondik norakoa zehazten zuen, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatzen. Bestalde, urtero, hitzarmen orokorrari lotutako urteko gehigarri bat izenpetzen da, urteko lanak elkarrekin zehazteko.

Hortaz, urriaren 15ean 2013rako gehigarria izenpetu dute EEPk eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen gehigarri horrek, bi erakundeen 2013. urteko lankidetzaren nondik norakoak, bakoitzaren egitekoak, argitalpen programa eta diru-laguntza zehazten ditu.

Hauek dira 2013. urteko eginkizun nagusiak:

- Euskaltzaindiak lan hauek argitaratuko ditu 2013an: *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. Gure Herria aldizkariaren idazleak (1924-1939)*. Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos; Ernest Daudet: «*Amodiaren martirra*» *Dolores, emazte bat berthutez bethea*. Prestatzailea: Xabier Alzibar; *Kultura eskubideen oinarri etikoak*. Autorea: P. Xarriton.
- Euskaltzaindiak EEPren eta Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Deialdiko argitalpen proiektuen hizkuntza kalitatearen azterketa egingo du.
- Euskaltzaindiak aholku emango dio EEPri, toponimoen grafia egokiari buruzko gaietan.
- Euskara teknikariei formakuntza ikastaro bat emango dio Euskaltzaindiak.
- IGNeko toponimoen normalizatzeko lanaren emaitzak publiko egitea. Alegia, IGNeko toponimoen arautze lanen berri emanen dute Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskaltzaindiak.

- IKAS pedagogia zentroaren argitalpen proiektuen hizkuntza baieztapena. Euskaltzaindiak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2013an araberrako prozedura egoki bat jarriko dute abian, IKAS pedagogia zentroarekin elkarlanean

El Correo egunkaria

Abenduaren 2an, *El Correo* egunkariak eta Euskaltzaindiak hiru urteko iraupena izango duen lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, Bilbon, Akademiaren egoitzan. *El Correo*ren izenean Juan Carlos Martínez zuzendariak sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hitzarmen horren bitartez, *El Correo* eta Euskaltzaindiak lankidetzarako proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte euskararen eta euskal kulturaren esparruan.

Bi erakundeak elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizazioarekin zerikusia duten proiektuak egiteko, Euskaltzaindiak euskararen inguruan ezartzen dituen arauak hedatzeko, eta arau horiek komunikabi-deetara egoki transmititzeko.

Bestalde, hitzarmen horren ondorioz, *El Correo* egunkariak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu 2013. urtean euskaraz argitaratu dituen testu guztiak, eta orobat, hitzarmenak indarra duen bitartean euskaraz sortuko dituen guztiak. Testu horiekin, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatuko du. Egitasmo hori UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin egiten ari da Akademia.

HABE

Abenduaren 13an, euskararen ezagutzan, erabileran eta sentsibilizazioan eragiteko, eta hainbat ikerketa bultzatzeko asmoz, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntze Erakundeak (HABEk) eta Euskaltzaindiak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute. HABEren izenean Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak sinatu du, HABEko

presidente den heinean, eta Euskaltzaindiaren izenean Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Akordioak jasotzen dituen gaien artean, HABEk Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak erantzunak emango edota bideratuko ditu.

Indarrean dagoen hitzarmenari segida emanez, Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka eta HABE erakundeko HABE Liburutegiaren artean lankidetzaz-egitasmoak garatzeko konpromisoa berresten dute bi aldeek. Lankidetzaz hau ikerketa-egitasmoak ahalbidetzera, barneratzen dituzten funtsen zabal-kundea egitera eta funtsen trukea segurtatzera bideratuko da, batez ere.

Horretaz aparte, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatze asmoz, HABEk argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoaz, HABE aldizkarian sortutakoaz batez ere, baliatzeko adostasuna erakusten dute.